

BALIOA:

Gizartearen zati handi bat beldur da lapurtuko ote dieten, bortxatuko ote dituzten edo eraso egingo dieten. Espainiako Barne Ministeritzaren datuen arabera, 2020ko 3. hiruilabetean 1485 lapurketa egon dira. Beraien lehentasunetako bat seguru sentitzea da, baina baita hala egotea ere. Egia da horretarako segurtasun-enpresak daudela, hala nola "Securitas Direct", baina enpresa hauek jabego pribatua zaintzen dute. Gure sistema, norbanakoaren segurtasuna bermatzen du edozein lekutan dagoela ere.

Gure sistema kale-sistema bat izango da. Gasteizko kale bakoitzean aparatu bat jarriko dugu, non, arriskuan egonez gero, hatz-marka jarrita, polizia pertsona dagoen tokira iritsiko da. Ez da zaila izango aparatua aurkitzea, Gasteizko kale bakoitzean bat egongo baita, eta horrela ez da nonahi bilatu beharko. Hatz-marka bat jarrita, polizia bidean izango da, eta seguruago egongo zara.

(Sistema honetan datza)



Gure sistema berria da, merkatuan ez baitago horrelako eskaintzarik. Laguntza lortzeko, etxera joan behar duzu, eta han polizia deitu ahal duzu. Gainera, lapurtu bazaituzte, beranduegi izango da. Gure sisteman, arriskuan egonez gero, ez da itxaron beharko etxera iritsi arte. Enpresa poliziarekin harremanetan jartzeaz arduratuko da eta polizia berehala joango da "deia" egin den lekura.

Gure aparatua elektronikoa izango da; izan ere, gaur egun errazagoa da elektronikoki lan egitea, bizitza hainbat alderditan errazten baitigu. Gainera, azkarragoa da horrela lan egitea, ezin baita pertsona bat kalean jarri populazio guztia laguntzeko.